

i
ra
ku
rri
matte

zumaiako literatur aldizkaria



irakurri matte

zumaiaiko literatur aldizkaria

AURKIBIDEA

aitzinsolasa	3
hala bazan...	4
Bizitzan, aurrera beti	
irakurri nahi, matte?	8
Nemesioren itzala	
kontu-kontari	10
Amets izoztuak	
kantu-kantari	13
Lagun berriak	
irakurketa-proposamena	14
Babilonia	
2008-ko abenduaren 1a	15

Argitaratzailea:



Laguntzailea:



Zumaiaiko Udala

Diseinua: Mari Bernal eta Roberto Gutierrez
Maketazioa: Roberto Gutierrez
Azaleko irudia: Leire Rubio
Lege-gordailua: SS-821-2008
Inprimategia: Antza S.L.

Zure lanak bidali nahi badizkiguzu,
hauxe duzu gure helbidea:

irakurri_matte@euskalerrria.org

IZAN ZORIONTSU, MATTE!

Joseba Ossa

“Irakurri, matte” izena irakurri nuenean oso iradokitzailea egin zitzaidan. Oso iradokitzaile, eta oso goxo.

“Asmatu duzue, maitiak!” pentsatu nuen neure baitan. Irakurzaletasuna modu goxoan bultzatzeko izen bikaina, alajaina!

Zorionak, beraz, ezer baino lehen, aldizkari hau posible egiten duzuen guztioi. Zorionak bizitzari poesia ukitu bat ematen laguntzen ari zaretenoi. Zorionak gure zauri ugariak goxatzen laguntzen duen lana egiten duzuelako.

Eta nire aldetik, desio bat erantsiko nuke: Izan zoriontsu, matte!

Bai, lapur handi batzuen etika faltagatik munduko ekonomia krisi sakon batean murgilduta baldin badago ere, izan zoriontsu, matte!

Garapen eredu desorekatu baten ondorioz Lurra zeharo zaurituta baldin badago ere, izan zoriontsu, matte!

Munduaren ikuskera sakonak eta sinesmen askatzaileak krisian badaude ere, izan zoriontsu, matte!

Mendebaldeko gizarte “aurreratu” hauetan pertsonak gero eta hutsago eta galduago sentitzen badira ere, izan zoriontsu, matte!

Gure inguruan gizonetako desorekatuen eskuek gero eta emakume gehiago erailtzen badituzte ere, izan zoriontsu, matte!

Gure hizkuntzaren biziraupena eta etorkizuna oraindik ziurtatuta ez badaude ere, izan zoriontsu, matte!

Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan buruzagi frantses-espainolak nagusitu eta atzera bagoaz ere, izan zoriontsu, matte!

Gure herriaren “askatzaile iraultzaileek” herritar eta ordezkari soilak erailtzen jarraitzen badute ere, izan zoriontsu, matte!

Gure klase “askatzaileek” enpresaren bat dugunoi mehatxu eta txantajea egiten jarraitzen badute ere, izan zoriontsu, matte!

Izan ere, irakurzaletasunak arazoak konpondu ez, baina bizitzaren saminak poesia ukitu batez goxatzen laguntzen digunez... izan zoriontsu irakurritz, matte!

BIZITZAN, AURRERA BETI

Testua: Patricia Amundarain (Maria eta Joseko DBH4)

Irudia: Idoia Garmendia (Maria eta Jose)

Lehena naiz. Atzetik ditut beste korrikalari guztiak, eta megafoniatik diotenez, bigarren korrikalariarengandik hiru minutuko distantzian omen nago.

Dagoeneko ez ditut entzuten horrenbeste gogoz betetzen ninduten ilusioz beteriko animu oiha haiek, eta oso nekaturik nago, ezin dut gehiago, lurra jotzear aurkitzen naiz. Mantsoago joango nintzateke, bai, nahiko nuke, baina ez! Eutsi egin behar diot! Ez dut uste 15 minutu baino gehiago beharko ditudanik helmugako zintara iristeko, edo agian bai.

Eguzkiak bizkarra erretzen dit, nire bizkarretik ur tanta lodi eta usaintsuak doaz beherantz eta aurrean dudan hondarrezko eremu lauak neketsuagoa, gogorragoa, zailagoa egiten du bidea. Bukaezina dirudi 2009 honetako Saharako maratoi honek. Baina bai, aurrea noa. LEHENA!

Aurrean ditudan haur afrikarrek ni ikustean jartzen dituzten poz aurpegiak deskriba ezinak dira. Horrenbesteko poztasuna, alaitasuna, emozioa, aurrera jarraitzeko gogoia, ezezagun horiekiko adeitasuna, ezezaguna duten gizon atzerritar batengan duten eskuzabaltasunak harritu egiten nau. Oinutsik daude eta gehienak nire ondoan datoz korrika nekatzen diren arte. Gezurra dirudi aurpegiaren duten alaitasuna izatea bizi diren egoeran bizi direlarik. Esker oneko pertsonak dira, begi garbi



eta onez begiratzen dute, beraien begien islak itxaropenez beteak dira, amaierarik gabeko itsasoari begira zaudenean sentitzen duzun sentimendu hori bezala. Hala ere, batzuetan, hitz arraroak esaten dituzte, ulertezinak dira niretzat, ezezagunak, bitxiak, urrunekoak...

Arraroa egiten zait. Maratoi honetan parte hartzen ari garen guztiok kilometro asko eta asko egin ditugu lehiaketa honetan aritzeko eta domina txatxu bat irabazteko baino ez. **HORI AL DA BENETAKO ZORIONTASUNA? BA OTE? AGIAN...**

Aurrerantz noa pixkanaka, eta korrika egiten dugun metro bakoitzean konturatzen naiz nolakoa den hemengo pertsona bakoitzaren irribarra. Ezagutzen ez bagaituzte ere, ulertezinak zaizkidan animo hitzak esaten dizkidate. Ez dut honelako eskuzabaltasunik topatu aspaldian.

Maratoi hau egiten dudan lehenengo aldia da, eta konturatu naiz bertan bizitako esperientzia ez dela hondar eta eguzki artean korrika egitea bakarrik. Munduaren beste ikuspegi bat aurkitu daiteke hemen.

Lehena noa eta ezin dut ikusi beste korrikalaririk, baina ez dakit benetan maratoia irabazi nahi ote dudan.

Urteak pasa ditut entrenatzen, eta orain, nire eskuetan dut garaipena. Baina, orain konturatzen naiz medaila dela gutxienekoa. Benetako esperientzia, 45 kilometro luze hauetan lortu dudana eta ikasi dudana da.

Baina, pozik nago, maratoi osoa egin dut, dagoeneko 100 metro falta zaizkit soilik, helmuga ikus dezaket kazetari ugari daude inguruan, korrika talde ezberdinetako ordezkariak, inguruko herrixketako ume, heldu eta zahar guztiak, garaipena nire esku ikusten dut jadanik, eskuak zerurantz zabaldurik denbora motelago balihoa bezala. Lurrean ematen dudan pauso luze eta gogor bakoitzeko soinuak, ikusleen oihuek baino soinu gehiago ateratzen duela iruditzen zait

80 metro helmugara iristeko...

Beste pauso batzuk helmugara iristeko...

60 metro helmugara iristeko...
Beste pauso batzuk helmugara iristeko...

40 metro helmugara iristeko...
Beste pauso batzuk helmugara iristeko...

Bat-batean nire gorputza desorekan sentitu dut. Hanka harri batekin trabatu dut, lurrerantz noa. Erortzen ari naizen bitartean nire hanka jasaten ari den mina sentitzen dut gorputz osoan.

Orain lurrean nago. Ezin dut aurrera jarraitu. Inguruan lehiakiderik ikusten ez dudan arren, badakit laster iritsiko direla nire ingurura. Niri begira zeuden haur guztiak niregana hurbildu dira, beraien irribarre zabal eta pozgarria galdu gabe. Niri bultzaka horrenbeste amesturiko helmugarantz urreratuz. Baina orain konturatu naiz, helmuga dela gutxienekoa.

Afrikako maratoi honek bulkada izugarria eman dio nire bizitzari, eta arraroa badirudi ere inoiz bizi izan dudan maratoi pozgarriena izan da.

Harrigarria.

Izugarria.

Sinestezina.

NEMESIOREN ITZALA

Josune Herrarte



ARGITALETXEA: Elkar
IDAZLEA: Pako Aristi
ILUSTRATZAILEA: Jokin Larrea

“Nemesioren itzala korrika joan da, baina Nemesiorik gabe. Ulertu al dezakezue hori? Zaila, ezta?” horrelaxe hasten da ipuina, irakurleari zuzenean egindako galderarekin, horrekin, jakin-mina sortzen du hasiera-hasieratik irakurlearengan. Eta hortik aurrera jakingo dugu zer gertatu zaion itzalari eta zergatik alde egin dion Nemesiori.

Ipuin hau oso egokia da zortzi-hamar urteko umeentzat eta irakurtzen oso erraza. Istorio bitxia da: benetan gerta ezin litekeen kontua izan arren, errealismo handiz idatzita dago, eta horrek erakargarri egiten du. Estiloak ere laguntzen du erakargarri egiten: hizkera bizi-bizia darabil, ulertzeko erraza, ahozkotik oso gertu dagoena, elkarrizketetan eta, batez ere, adierazkortasunez beteriko esaldietan.

Egitura aldetik badu bere berezitasuna. Gertakariak sekuentziaz sekuentzia azaltzen dira, bakoitzak bere titulua duelarik. Horrela, garai bateko telesailetan bezala, misterioa atalka egituratzen da, eta poliki-poliki aletzen: *Susmoa*, *ihesa*, *bilaketa*.... eta beste hainbat izenburu iradokitzaileekin, berez, detektibe-historia izan ez arren, kutsu hori ematen diona.

Istorioaren atzean edo, bestelako mamia aurki liteke gainera. Guraso bakarreko familian bizi da Nemesio, jatun txarra da, amak errieta asko egiten dio, ez zaio gehiegi gustatzen eskolara joatea.... Zeharka aipatzen diren kontuak izan arren, umeekin gaurkotasun handiko hainbat gai lantzeko aukera ere ematen du ipuin honek. Hasierako deskribapenean azaltzen denez, Nemesio Euskal Herriko edozein mutikoren tankerakoa da, eta umeak erraz identifikatu litezke harekin.

Ilustrazioek ere asko laguntzen dute istorioaren garapenean eta erakargarriak izateaz gain, kasu batzuetan argigarriak ere badira, hitzez esplikatzeko dena hobeto ulertzen laguntzen diolako irakurleari, amak hozkailuan jartzen duen tranparen kasuan, esate baterako. Irudiak landuak dira eta pertsonaien nortasuna erakusten dute.

AMETS IZOZTUAK

Testua: Igor Albizu
Irudia: J.C. Ferriz de los Santos

Txingor armada erasoan zebilen bitartean, Txomin amets izoztuetan ari zen, aspaldian bezala. Estalpea bere esku zegoen guztia egiten ari zen eguneroko lagunak babesteko, baina hotzaren aurka, hotzaren aurka gutxi egin zezakeen. Eta hotza egiten zuen. Kristoren hotza. Ez aldameneko eraikin dotorearen barruan. Ezta berrehun metrotara zeuden koltxoi-dendan edo jatetxe barnean ere. Baina bai ordea kartoizko ohe haietan, zaku zikin haien barruan egonda ere. Berotzeko, gorputza eta gogoa, ardo merkea erabiltzen zuten gehienek, litroka, baina Txominek aspaldi utzi zion edateari.

Bere barruak ezetz zioen, baina berriz egitera behartuta zegoen. Bazekien.

Supermerkatura sartu zenean, kutxan zegoen neska gazteak irribarre zabal batekin agurtu zuen. Uste baino zailagoa izan behar zuen.

Arnasa sakon hartu eta planaren lehen pausoak gauzatzea erabaki zuen. Oraindik ez zegoen arriskurik. Atzera botatzeko nahiko asti zeukan oraindik. Edo hori uste zuen behintzat. Ogi barra saskian sartu zuen lehendabizi. Ondoren, txokolatea, kakao askokoa. Laranja bat gero, handia, biribil-biribila. Urdaitegian 150 gramo urdaiazpiko eskatu zituen, onekoa, ezkurra jaten duten eta lepoa moztu arte libre bizi diren zerri horietakoena. Espero bezala, 200 gramotik gora jarri zizkion. Kentzea nahi ote zuen galdetu zion urdai-saltzaileak eta ezetz esan zion. Azken finean, ez zeukan ordaintzeko asmorik.



Bigarren zatia zetorren orain. Bihotzaren taupadak ozen entzuten zituen. Azkar. Arnasa sakon hartu berriz eta piperrei begira jarri zen, museo batean egongo balitz bezala. Ontzien itxura eta tamaina desberdinak, koloreak, diseinua, izenak, jatorria, pisu garbia, pisu gordina... Bazekien alferrik zela, atzeratzea okerrago zela eta horregatik azkar abiatu zen. Sukaldeko tresnak zeuden apalera joan eta zegoen aitzorik handiena sartu zuen saskian.

Ez zebilen jende asko eta laster batean kaxa hutsik geratu zen, bezero baten zain, bere zain. Hortzak estutu eta kaxara zuzendu zen. Lasaitu egin zen. Zailena eginda baitzegoen. Ez zegoen atzera bueltarik jada. Gauzak ondo egitea besterik ez zen falta orain. Neska gazteak ogia hartu zuen, pii, laranja, pii, txokolatea, pii, urdaiazpikoa eta labana, pii pii. Txominek poltsan sartu zituen eta billetea eman zion ordaintzeko. Kaxa irekitzearekin batera, labana hartu, neskarengana gerturatu eta labana gora altxatu zuen, tinko.

—Eman daukazun diru guztia eta ez da ezer gertatuko— esan zuen Txominek, argi zegoena ofizial eginez.

Neska gazteak ez zuen izan zalantzarik. Di-da batean kaxan zegoen diru guztia eman zion.

—Eskerrik asko. Eta ez deitu poliziari hurrengo ordu laurdenean bestela zure bila etorriko naiz— mehatxatu zuen Txominek.

Kitto. Eginda zegoen. Dena ondo atera zen. Kalera irten zenean, bi gazterekin egin zuen topo. Ile kizkurdunak eskuineko eskuan zeraman billete sortan jarri zuen arreta. Betaurrekodunak, berriz, beste eskuko aizto distiratsuan.

—Tori. Zuentzat— esan zuen Txominek, eskua luzatuz.

Ile kizkurdunak bitan pentsatu gabe hartu zuen billete sorta. Orduan, betaurrekodunak besotik heldu zion, eta biak korrika desagertu ziren kale bukaeran.

Txomin pareko bankuan eseri zen. Lehenbizi txokolate puska bat sartu zuen ahoan, ogi pixka batekin. Ondoren urdaiazpiko-ogitartekoa prestatu eta haginka hasi zitzaion. Benetan ona zegoen urdaiazpikoa. Beste txokolate pixka bat. Sirena hotsak uste baino lehenago iritsi ziren. Hamar minutu edo emango zituen Txominek eserita. Sirenen atzetik, beti bezain leial, polizia autoa agertu zen. Txomin laranja zuritzen ari zela iritsi ziren. Pena hartu zuen, baina bazekien zer egin behar zuen. Aiztoa erortzen utzi, tente jarri eta eskuak gora altxatu zituen.

—Bota eskuan daukazuna aitona!— oihukatu zion polizi gazteak.

—Laranja bat da— esan zion Txominek.—Botatzeko eskuan daukazuna!— esan zion beste poliziak, Txominen gainera etortzen zen bitartean.

Poliziak laranja eskutik kendu eta amorrus lurraren kontra eztandarazi zuen.

—Espetxearen epelean egun batzuk pasa beharko dituzula uste dut, goazen aitona— esan zuen polizia gazteak besotik Txomin autora eramaten zuen bitartean.

Txominek laranjari azken begirada eman eta autoan sartu zen.

LAGUN BERRIAK

Iosu Manzidor

Doinua: Haizea dator iparraldetik

-1-

Hotza, euria, haizea gogor
zertan atera kalera
telebistaren aurrean mantso
doaz orduak aurrera.
Ausartu zaitetz mandoa hartuz
telebista itzaltzera
eta norbaitek behin utzitako
liburu hori hartzera.
Liburuaren lehen orriak
irakurtzeaz batera
pertsonei berezienez
lagun bihurtuko zera.

-2-

Nueva Yorkeko mutil gazte bat
dago zure egongelan.
Itsas gizon bat Pazifikora
ihesi doana hegan
Eskalatzaile sentibera bat,
fraide bat Ponte a Eman
Lagun dituzu Julio, Holden,
De Groening edo Rick
Deckard.
Zuk beraieri zeure denbora
soilik behar diezu eman
eta beraiek beren zati bat
utziko dute zuregan.

-3-

Gozatzen duzu amets batean
bizi denaren zerua,
sufritzen duzu etsipenera
doanaren infernua.
Puska ezazu beti islada
bera duen ispilua.
Zure barruan zabaltzen duzun
leiho bat da liburua,
lagun berrion haize freskoaz
beteaz zure burua
ohartzen zera zeinen itxia
izan den zure mundua.

BABILONIA

Axun Elduaen

Bi baserri, Babilonia-Moabe.
Babiloniak gizon indartsuak eman zituen eta
Moabek, beste mundukoekin harremanak zituzten
emakumeak.
Bi anaia, Trinido-Feliciano (Cain eta Abel).
Bi sinesmen, Mari-Ama Birjina.
Emakume bat, Margari.
Lore bat, kamelia
Sua



ARGITALETXEA: Elkar
IDAZLEA: Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoienek duela 20 urte argitaratutako eleberri hau, liburuaren hitzaurrean diotenaren arabera, Kamelia Zuriko Misericordi Etxean aurkitutako dokumentu batzuetan oinarrituta idatzi zuen. Hiru narratzaile kontatzaile moduan jarrita, XIX. mendean Euskal Herrian zeuden arazoak azaltzen ditu: sinesmen zaharrak eta aurrerapenak, gerra karlistak, trenaren eraikuntza eta bizitzeko era desberdinen arteko talka.

Naturaren indarrek, sinesmen magikoek eta indar telurikoek inguratzen dute jaio baino lehen elkar gorrotatzen zuten bi anaia bikien jaiotza eta heriotza. Bitartean, maitasuna, gorrotoa, traizioak... Guztia inguratuz, lurrarekin lotura, hildakoen hurbiltasuna, mitoak, poesia eta kondairak, egiazkoak balira bezala kontatzen diren istorio bitxi, harrigarri eta hunkigarriak. Konjuruen, belarren eta madarikazioen, hitzen naturaz gaindiko ahalmena.

Irakurtzen hasi eta utzi ezin den istorio horietakoa da. Ederra bezain tragikoa. Irakurri ondoren, gogoan gelditzen dena.

Denbora igaro izanak, zaharkituta utzi ez dituen gaiak. Atzokoak eta gaurkoak, betikoak, era magikoan kontatuak.

2008ko abenduaren 1a

Hotz egiten du gaur
Euskal Herriko txoko eta
bazter guztietan.
Hotz egiten du gaur
Algorri aldeko labarrean.
Itsas aldetik txori bandada
dator hotzari ihesean.
Baina kantari datoz,
bandada ikaragarrian.
Larai-larala-larala-laralai
Larai-larala-larai.
Eta guk, Laboa dugu maite
eta guk, Laboa dugu maite.



Nik ere bai: Maria Anjeles Zendoia.

